

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

242/2020 Foru Agindua, urriaren 14ekoa, hasierako onespena ematen diona ondoko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzekoa, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatuta, Lantziegoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar igarotzeari dagokionez

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (Iberdrola Taldea) udalaren obra lizentzia eskatu dio Lantziegoko Udalarari proiektu honetarako: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzekoa, Lantziego eta Guardiako udalerrietan.

Zehazki, erakunde eskatzaileak adierazten du 13,2 kV-ko linea mistoaren bidezko lotura dela, "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarriaren eta "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroaren artekoa, Lantziegoko udalerrian.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati dira proiektu tekniko eta udal arkitektoak emandako txostena, non jasotzen baita Lantziegoko udalerriri dagokion tartea landa izaerako lursail pribatuetatik doala, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuak eta J.25 Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Intereseko Zona Babestu zona gisa kalifikatuak, indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitakoaren arabera. Aipatu behar da txostenak akats material bat duela atal horretan eta Lurzoru Urbanizagarria esaten duela, baina udal mugartearen kalifikazioaren P-1 planoaren erreproduzioa eranstean du, eta plano horren gainean proiektatutako trazaduraren ibilbidea markatzen du lurzoru urbanizaezinean kokatutako lurzatietan.

Halaber, txosten teknikoan jasota dago trazaduraren hasiera LA.15 El Carrascal norte handitzeko industria sektoreko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lursailetatik igarotzen dela, eta trazadurak zeharkatzen dituen lursailak ez dutela onartutako urbanizatzeko jarduketa programarik.

Guardiako Udalak proiektu berdina bidali du, eta Guardiako udalerritik igarotzen den zatiaren interes publikoko adierazpena izapidetzen ari da (foru espediente: AHI-106/20-J01).

ONINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente eabazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorri lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru finkatugabeen baimentzea, haien hirigintza antolamendua urbanizatzeko jarduketa programa abiaraztearen bidez gauzaten hasi arte, guztiz koherentea da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 11.2 artikuluan eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak 19. artikuluan ezarritako higiezinaren jabetzaren estatutu araudiarekin, eta lurzoru mota orori dagokion oinarriko lege edukia edo jatorrizkoa ezartzearekin, zeinaren bidez titularrari ematen baitzaizkio ondasunaren erabilera, gozatzeko eta ustiatze arruntarako ahalmenak, eta baimentzen baitira lurzoruaren landa izaerarekin bat etorri eta modu arrazionalen baliatzeko erabilera egokiak eta zehatzak, hirigintzarako erabiltzea edo eraldatzea ez dakarten bitartean, bat etorri Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 eta 13.1 artikuluekin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 20, 21 eta 28.3 artikuluekin.

Lurzoru urbanizaezinean baimen daitezkeen erabileren artean, berariaz Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 21.1.a) artikulua logikoki kanpoan uzten ditu aurretik dauden base-riak berreraikitzeak aukera, 30. artikuluan arautua, eta baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntzari loturiko oin berriko etxebizitzak eraikitzea, 31. artikuluan araubidetuak, bi xede horiek bateraezinez direlako urbanizatzeko jarduketa programa onestea ekarriko duen hirigintza eraldaketarekin.

Logikoki, kanpoan utzi beharrekoak dira, halaber, interes publikoko zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak, 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatuak, salbuespen izaera dutelako, lursailak beren izaeraren arabera erabili, gozatu eta xedatzeko eskubidetik harago baitoaz, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.2.e) artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, 13.1. artikuluekin lotuta.

Hori dela eta, lurzoru urbanizagarrietatik igarotzen den proiektuaren zatia ezin du interes publikokotzat jo aldundi honek. Udalak zuzenean baimendu beharko du, hala badagokio, aplikatzekoa den hirigintza plangintzarekin bat etorri.

Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. - Hasierako onspina ematea ondoko proiektuaren interes publikoaren adierazpenari buruzko espedienteari: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzekoa, Lantziego eta Guardiako udalerrietan, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatuta, Lantziegoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar igarotzeari dagokionez.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hoguei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu hau kualifikatu gabeko izapide egintza bat da eta haren aurka ez dago errekurtsoa jartzerik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO